

en una graella de síntesi i, a més, l'estudi inclou un "Índex d'esment dels contes" (91-92), on es referencien les pàgines on s'esmenta el títol del relat i on es troben els comentaris específics. Tant les graelles com aquest índex són una deferència envers els investigadors, que podran localitzar ràpidament la informació que necessitin.

En definitiva, *Vint-i-dues aproximacions a la traïció com a tema literari* és un estudi sòlid, ben argumentat, que demostra un treball acurat, metòdic i meticulós. La claredat expositiva i l'ordre del discurs el fan un text accessible per al públic general i útil per al lector especialitzat. El text de Mir ens convida a redescobrir aquesta obra de Rodoreda i, en certa manera, és també una reivindicació del conte, un gènere considerat menor. En el cas de Rodoreda, els contes han quedat eclipsats per l'èxit rotund de les novel·les (especialment, *La plaça del Diamant*), que han rebut molts més elogis i atencions. Així doncs, l'estudi ens ajuda a entendre *Vint-i-dos contes* des d'una nova perspectiva centrada en la traïció i ens convida a tornar a llegir-lo, valorar-lo i gaudir-lo.

LLUCIA SERRA FERRE

llucia.serra.cat@gmail.com

D.O.I.: 10.1344/Lectora2022.28.29

Universitat de les Illes Balears

## Una nueva historia de los feminismos ibéricos

Silvia Bermúdez eta Roberta Johnson (eds.)

Valentzia, Tirant Humanidades, 2021, 705 pp. ISBN: 978-84-18656-22-4

*Iberiar Penintsulako feminismoen historia berria* dakarkigu Silvia Bermúdezek eta Roberta Johnsonek editatutako bilduma honek. XVIII. mendetik hasi eta XXI. mendeko bigarren hamarkadara arteko epealdian Iberiar Penintsulako lurraldeetan izandako aktibismo, argitalpen eta pentsamendu feministaren garapenaren panoramika bat osatzen du lanak. 2018ko urtarrilean argitaratutako *A New History of Iberian Feminisms* (University of Toronto Press, 2018) bilduman du jatorria eta argitalpen gehienak aurrez ingelesez argitaratutako testuen itzulpenak dira, gaztelaniara ekarriak. Orotara hogeita hamar adituren ekarpenak biltzen ditu lanak eta ibilbide kronologikoa osatzen duten sei atal nagusitan banatua da.

"Iberiar feminismoa Argien Mendean" izenburua daraman lehen atalak Ilustrazio garaiko emakumeen egoeraren inguruko azterketak eskaintzen ditu, María Victoria López-Cordón Cortezoren, Mónica Bolufer Perugaren, Elizabeth

Franklin Lewisen, Catherine M. Jafferren, Vanda Anastácioaren eta Bakarne Altonaga Begoñaren ekarpenak bilduz. Hasierako kapituluetan, Ilustrazioko giro politiko eta soziala deskribatu eta garaian emakumeen gizarte rolaren inguruan sortutako eztabaidak aurkezten dituzte (49-69 eta 71-86). Ildo honi jarraikiz, testuinguru horretan feminismoaren gakoetako bat izan zen “amatasun zibikoa”—ren kontzeptua du gogoetagai hurrengo kapituluak, amatasuna jardun publiko gisa ulertzen zuten garaiko emakume desberdinen ekarpenetatik abiatuta (89-99). Laugarren kapituluan, ezkontza da arretagunea eta XVII. mende amaieran gizarte-berdintasunean oinarritutako harreman afektibo gisa aldarrikatzera eraman zuen bilakaera. Bide honetan, aldaketa hau ahalbidetu zuten XVIII. mendeko emakume idazleen sorkuntza lanetan islatutako gatazka eta hausnarketak ere aurkezten dira (101-112). Lehen ataleko azken bi kapituluak Ilustrazio garaiko Portugaleko eta Euskal Autonomia Erkidegoko egoeraren berri ematen dute, inguruko mugimenduen eraginari zein lurralde bakoitzeko berezitasunei erreparatuz (113-130 eta 131-141).

Bigarren atalak Iberiar Penintsulan XIX. mendean garatutako feminismoaren irakurketak biltzen ditu, “XIX. mende luzea (1808-1920)” izenburupean. Maryellen Biederrek eta João Estevesek lehen bi artikuluetan Espainia eta Portugaleko garaiko testuingurua aurkezten dute, mende honetan emakumearen egoerak izandako bilakaeraren berri emanez (145-153 eta 155-165). Bi egileek eboluzio honetan prentsa eta literatur agerkarietan emakumeek izandako parte-hartzea nabarmentzen dute eta hori da, hain zuzen ere, Christine Arkinstallek eta Maryellen Biederrek berak ondoko lau kapituluetan aztergai dutena: emakumeen garaiko argitalpenek pentsamendu feministaren garapenean izandako eragina (167-188, 189-209, 211-226 eta 227-252). Ildo beretik, Aurélie Vialettek atala ixten duen kapituluan aldizkari sareak ditu aztergai eta emakume enpresariaren rola hauen sustapenean (263-274). Atala osatzen duen hamahirugarren artikuluan, Iratxe Retolaza Gutierrezek, Amaia Álvarez Uriak eta Josune Muñoz San Josék XIX. mende amaiera eta XX. mende hasieran emakumeen euskal eremu publikorako sarbidea ahalbidetu zuten bi gako dituzte aztergai: garaiko mugimendu kulturala eta emakumeek hezkuntzara izandako sarbidea (253-262).

“Mugimendu feminista iberiarrek indarra hartu zuten errepublikan garaian (1920-1939)” izenburua darama hirugarren atalak. Lehen bi kapituluetan Deborah Maddenek Portugal hartzen du hizpide, zehazki XX. mende hastapeneko mugimendu errepublikarra eta honen garapenean mugimendu feministak izandako eragina (277-283 eta 285-293). Ondoko bi kapituluetan Roberta Johnsonek, Olga Castrok eta M<sup>a</sup> Ángeles Cabrék urte horietako Espainiako egoera dute aztergai, garaiko pentsalari feministen lanak elkarriketara ekarriz (295-302 eta 303-325). Atalaren amaierako kapituluan 1930eko hamarkadako euskal mugimendu feminista du mintzagai Miren Llonak (327-333).

“Antonio Oliveira Salazar (1926-1974) eta Francisco Francoren (1939-1975) diktadurak” izenburupean, diktadorek baldintzatutako testuinguruak dituzte aztergai João Esteves, Roberta Johnson, Fátima Mariano, Silvia Bermúdez, Mary Nash, Jone M. Hernández García, María Ruiz Torrado eta Iratxe Retolaza Gutierrez adituek bildumako laugarren atalean. Irekierako kapituluan (337-350), diktadorek Espainiara eta Portugalera ekarritako aldaketa soziopolitikoak eta hauek mugimendu feministetan izandako eragina kokatu ostean, garaiko sorkuntza literarioaren azterketak biltzen dira ondoko hiru kapituluetan, errepresio eta zentsura testuinguru honetan idazle portugaldar, espainiar eta galegoen ekarpenak aipatuz (351-360, 361-369 eta 371-380). Atalaren azken bi kapituluak garaiko mugimendu feminista katalan eta euskaldunaren azterketari eskainiak dira, hurrenez hurren. Lehenean, feminismo katalanaren oinarriak finkatu ziren 1970eko hamarkada hizpide hartuz (381-391); bigarrenean, euskal eremuko hizkuntza zein kulturari lotutako erresistentzia guneak eta emakumeek erregimenaren kontrako ekimen desberdinetan izandako parte-hartzea aurkeztuz (393-412).

“Hastapen berri bat: demokraziarako trantsizioa eta iberiar feminismoen bigarren olatua (1974/1975-1994/1996)” bosgarren atalean, diktaduren osteko iberiar penintsulako testuingurua dute aztergai Silvia Bermúdezek, Asunción Bernárdez Rodalek, Ana Paula Ferreirak, Roberta Johnsonek, Elia Romera-Figueroak, Maialen Arangurenak, Nerea Arestik, María Do Cebreiro Rábade Villarek eta Gloria Nielfa Cristóbalek. Atalaren sarrerako kapituluan testuinguru soziopolitikoak kokatu ostean (415-430), ondoko bietan Portugaleko eta Espainiako lurralde gaztelar eta katalanetako mugimendu feministaren baitan giltzarri izandako gertaerak, sorkuntza-lanak eta eztabaidak dira aipagai (431-439 eta 441-451). Euskal mugimendu feminista autonomoari eta aro demokratikoko feminismo galiziarrari ere eskaini zaie atal honetan kapitulu bana (469-478 eta 479-488), baita trantsizio garaian mugimendu feministari loturik Madrilgo erkidegoan lekukotutako gertaerei ere (489-505). «Iberiar penintsulako abesti berria» izendatuak aldarri feministaren artikulazioari egindako ekarpenei buruzko kapituluak osatzen du atala (453-467).

“Iberiar feminismoen aniztasuna, 1996tik gaur arte” izenburu du bildumaren itxierako atalak eta Silvia Bermúdez, Asunción Bernárdez Rodal, Ana Paula Ferreira, Roberta Johnson, M<sup>a</sup> Ángeles Cabré, Olga Castro, María Do Cebreiro Rábade Villar, Jone M. Hernández García eta Mari Luz Esteban adituen lanekin osatua da. Testuinguru garaikideari begira diren azterketak dira atal honetan bildutakoak eta XX. mende amaieratik hasi eta gaurdainoko feminismoaren garapenaren berezitasunak eta eztabaida berriak dituzte aipagai. Iberiar penintsulako azken mende laurdenaren gako historiko nagusiak eskaintzen dituen sarrerako kapituluak salbu (509-532), gainerakoek fokua eremu geografiko

jakinetan jarria dute: Estatu espainiarrean (533-540), Katalunian (541-548), Galizian (549-565), Euskal Herrian (567-576 eta 577-587) eta Madrileko Erkidegoan (589-598), hurrenez hurren. Finá Birulésen epilogo batek ematen dio lanari itxiera, postfeminismoaren inguruko gogoetarekin emanez amaiera bildumari.

Halaz, esan genezake, lan mardul honek XVIII. mendetik XXI. mendeko bigarren hamarkadara arteko Iberiar penintsulako feminismoaren bilakaera eta berezitasunen inguruko ibilbide oso bat eskaintzearekin batera, ekarpen funtsezko bat egiten duela: ikuspegi poliedriko bat eskaintzen du, lurralde bakoitzaren berezitasun historiko-politikoak eta aktibismo feministen garapen ildo desberdinak kontuan hartuz eta, era honetan, ohiko periodizazioen berrikuspen bat proposatuz. Gako hauek egiten dute bilduma berritzaile eta baitezpadako.

ANE VILLAGRAN ARRASTOA  
anemiren.villagran@ehu.eus

**Euskal Herriko Unibertsitatea**  
**Université Bordeaux Montaigne**

D.O.I.: 10.1344/Lectora2022.28.30

